


BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
70n. ZENBAKIA
AZILLA
GABONILLA
1983



PAUL DEUNA
(Bilbo'ko San Anton'en.
Urioleak kalte aundiak egin
dautsozan Txadona)

GABON-EGUBERRI

Gabon, egun bateri dagokio. Eta Eguberri?

Egubarri-egun barri. Askorentzak urte barri eguna, gizaldi zurretan urtea Jesus'en jaiotz egunean asten zalako.

Alemania'n, XI gizaldian, orrela asten zan.

Katalu.ia'n, Tarragona'ko konzilio batek aginduta, 1180 urtean asi ziran era orretan.

Itali'ko erri andietan, XIII-XV garren gizaldien artean orrela egiten zan.

Espasa Calpe'ren esanetan, Aragon'en 1350 urtean asi ziran kristau era orregaz; Valencia'n 1358, Castilla'n 1383 eta Portuga-
l'en 1442n. urtean.

Beraz euskaldunon eguberri be ortik etorri lei.

Gabonari buruz, gure oiturak ezagunak dira.

Nik etxean ikusten neban beti; aparta astean aitak edo amak ogiaren gaiñean kurutze ezaugarria egiten eben kutxilloagaz, eta kuskurra kendu eta gorde, urte guztian lizunduten ez zan sinistez.

Gabon-egunean, jan be ez gendun sukaldean edo eskaratzean egiten, gitxitan erabilten gendun jan-gelan baiño. Eta mai-gaiñeko edo mantel barririk ba'eukan, amak alegin egingo eban gau orretan ateraten.

Sagasti bat edo bi euki genduzen artean, gabon gabeko sutako autsa gorde egiten zan, jai ondoren sagastietara eroateko eta an zabaldu. Piztiak ilten ei ziran.

Jakiña da Bizkai'ko, erri askotan, gabon egunean iruten zan aria gorde egin bear izaten zala, lamiñen zirikaldiak uxatzeko atorrak egiteko.

Naparroa'ko erri batzutan, gau erdiko meza entzun ondoren, aparti berezi bat egiten da: sorgin-aparia deitzen dautsoe. Eta gau orretako ogia mai-gaiñean edo arazan lagaten da Andre Mari'k eta san Jose'k jan dagien.

Oituraz aberatsa dan egun eta aru onek, esaerak ugari eukiko ditunik ezin ukatu. Ara, betetik eta bestetik batuta, batzuk:

Ara bertan ezer ez, azak bai, koiperik ez, gabon egunean olakorik ez.

—Baserritarra, tirri-tarra, bota uzkarra, jan bedarra. Gabon eguneko azakin kaletarra nire parra.

Santu guztien egunetik egue-
rritara, aize ta euri gitxi, lekak genbarara.

Eguberriak, zoroak ere igarri.

—Eguberri illargirik gabe, artzaiña arkumerik gabe.

Eguberri zerekin, urte berri arekin.

Abadearen lapikoa, txikia baiña gozua. Gurean gabonetan bakarrik aren aiñakua.

Onak dira ezkontzeko urtea, txarria ilteko astea eta gabon gabeko aparti prestatzea.

Gabon bon-bon, Natibitate ase ta bete. San Estebantxe beti len letxe.

Porru eta gatz, gabon gabeko barazkari latz.

Zuen osasunerako ta neure onerako. Datorren gabonean ala ez ba'ledi, nire orde zarrenak esan bedi.

—Iru ta iru sei, ta iru bederatzi. Oletako txakurrari dantzan erakutsi. Ezin ba dau ikasi, gabon gabeko aza jan erazi.

Eguberri, sua mokorrekin; paskoz adar meekin.

Oenezaroz leioan, paskotan sua.

Urteak aoa luze du. Eguberri-
tatik bear da konturatu.

Dagonean bon-bon, eztagonean egon, gabonean danontzat dago ta ez lo egon.

Emotea on, artzea obe, gabon gauean iñor ez da probe.

gabon, daukanak bon-bon, eztaukanak zontzon.

Gabon, daukanak eztaukanari emon.

Zetarako jarraitu?

Abestietan be aberatsa da aro au. Gaurkoz bear ba'da guretarran artean ugarien zan aparta gogoratuko dogu:

Aza olioak pil-pil,
besigua txir-txar,
gaztaña erreak pin-pan,
gabon da ta edan eta jan.

EGAZKIÑAK ARIN

GIZONA

Antxiñatik izan dau gizonak egaztien bekaitza eta euren antzera egaz egin gurea, baiña gizaldietan alegiñak egin izan arren (gogoratu, esaterako Loenardo de Vinci'renak) oraintsura-arte ez da lortu ames lillu ragarri ori betetea.

Gure aldi onetan bai, gizonak zelan edo alan, banaka ezin izan dalako taldean, lortu dau egaz egitea, eta egaztiak baiño askoz arintasun aundigoaz lortu be, izar izardietara doazan asmagailuak aide batera, egu-nero dabilzan egazkiñak kontuan dirala.

EZ-BEARRAK

Baiña aurrerapen guztiaI lez, onek be bere akatsak eta arriskuak daukoz, ori ziurtatzeko aspaldi onetan izan Barajas'eko istripu tamalgarriak gogoratzea da naikoa.

Ez-bear oneik, gaiñera, ez dira edozelakoak. Lurreko istripuetan bizirik urteteko itxaropena askoz aundiagoa izaten da, egazkiñetan, ostera, batez be aidean doazenean utsen bat izan ezkeru. ez dauka iñork be bizirik urteteko itxaropenik.

AURRERA PENA

Dana dala, bere arrisku ta guzti, egazkiñen mundua gure mundu larri ta atsegingarri onetako aurrerapen aundia da.

Gaur orduetan egiten diran osterak egiteko, gure aurretikoak illeak edo urteak bear izaten ebezan. Esaterako Marko Polo'ren ibillaldia Txina'ra edo Kolon'en joan-etorriak Ameriketara.

Gaur sinistu ezinik egoten gara Ameriketetan apaldu eta urrengo egunean etxean bazkaltzen dogunean.

ONURAK ETA AKATSAK

Aundiak dira aurrerapen orrek ekarri dauskuzan onurak baiña ba-ditu bere akatsak bere. Arin-ibilte orrek ez dausku sarritan munduko erriak sakon ezagutzako aukerarik emoten. Antxiñako ostera astitsuak, patxada obeaz egiten ziran eta joaten giñan lekuan bertakotuta amaitzen genduan. Gaurko bizitza onek ez dau olako aukera aundirik emoten.

Egia da arin joan etorri egin arren, goazen lekuan egotaldi astitsuak egin leikezela, baiña arin egin gura orrek, zori txarrez, gure barruan artegatasuna sortzen dau eta ez da izaten orretarako gogorik.

IBILTE ARIÑAREN POZA

Egazkin-zelaitik abiada ikaragarriaz urten, laiñoak zulatu zearketa miragarrian eta gure oinpeko lez odeiak ikusten doguzanean, edo egun argi ta laiño-bakoak diranean an bean mundu txiki bat ikusten dogunean, askatasun-poz aundia sortzen da gure barruan eta zerutik be urrago gagozala ames egiten dogu. Gure ibillaldia ez da "sasi guztien gaiñetik eta laiño guztien azpitik", laiñoak baiño gorago goaz.

Ostera orreik ez dira, ba, merke-merkeak, baiña pozgarriak, batez be gizon ameslarientzat.

BILDURRA

Egazkiñez egiten dan ostereak, naizta barruan ziurtasun-giroa asmau, beti emoten dau bildur-pizka bat: Igokeran, goian aizearen utsuneetan egazkiñak dar-dar egiten dauanean eta jatsikeran.

Sortaldeko egazkiñetan ibiltariak egazkin-zelaira jatsitean gidariari txaloak joten dautsoez. Eta ondo joak dira, zor jakoz, geure esker ona agertzeko.

Bildur, onura, atsegin, ezbear, poz, arintasun, diru-eralgite ta guzti, or daukagu gure mundu onen aurrerapen aundi bat.

EUSKALERRITIK MUNDURA BEGIRA

TXIPRE ETA EUZKADI

Lurralde zaarra, antziñako aldi aietan ospetsua, dozue Txipre deritzan ugarte. Ez da aundia. Gure Naparroa baiño txikerragoa. Bere 9 milla kilometro laukoiekin ez bait da 10 milla dituan Naparroa'ren larrantz edo tamañura iristen. 637 milla biztanle badauz ala ere. 500 millara iristen ez dan Naparroa'k baiño geiago.

Grezi'ko ipui zaarrek esaten emen lez, an jaio omen zan Afrodinu, (erromatarren Venus), maitasunaren jaikoemea, itsaso urdiñeko o uinñen aparretik sortua.

Gaur ordea, maitasunak ez dau non-egonik Txipre'ko mendietan. Asarrea da ba, azkeneko ogeita lau urte auetan, bertako nagusi. Ara zergaitik:

Txipre'ko jenderik geiena, (100'tik 82), greziarra da: elendarra. Jende oien izkuntza ere, elenerraren izkelki edo dialektu bat da. Baiña bertako jendearen artean elendarrak ez diran beste 100'dik 18'ak turkistarrak dira endaz eta izkuntzaz, Txipre'n Turki'ren mendean bizi izan dira lau mendeen luzaroan bertara joandakoen umeak.

Euskalerrian ere, Txipre'n bezala, bi endako jendea bizi jaku batera: Españiarra, egoaldetik azkeneko urte autan gure lurrera etorria, eta euskalduna, emen sortua eta paleolitiko edo «arrizarraren aldia» ezkerre emen bizi dana.

Laterri edo Estadu batentzat bi jende-mota bere altzoan izatea,

arrisku aundiko gauza izan oi da, bertako bi jende-mota oiek alkarrekin pakean bizitzen ikasten ez ba'dabe. Eta Txipre'n ori gertatu da.

1959'an lortu eban Txipre'k askatasuna, eta orduantxe bertan asi jakon enda-arteko borroka. Txipre ez da iñoiz Grezi'rena izan, baiña andaz elendar diran txiprear guztiek, Grezi'rekin alkartu nai izan eben eta Txipre Grezi'ren probintzi biurtu. Asmo orren aurka borrokara jo eben turkian endakoeke Turki beraren 'agutzarekin.

Al zuan guzia egiten saiatu zan Makarios gotzai lendakaria bi enda arteko pakea lortzen eta bazirudian bere asmoa lortzera zi-joaia ere, baiñan orduan, izugarrizko astakeri bat egin eben, Grezi'ko militarrek.

Ordurako, Grezi'n, izkilluen bidez ekintza anker batean demokrazia ezereztuta diktadura ezarria zeukaten militarrek. Eta beste edonon bezala, eundoko okerkeriak egin ebezan an ere. Aundienetako bat, Txipre'ko eleniar ertzakoi edo extremistak, Txipre Grezi'ra alkartzearren, Makarios'en aurka iraultzara bultzatzea. Bota eben Makarios landakaritzatik, baiña orduan, ibere gudaroztea sartu eban Turki'k Txipre'ko ugartean! Arrezkeo bi zati egiñik dago ugarte ura. Eta azkeneko egun auetan Laterri yare edo independientea egin dabe turkiar-endakoeke beren zatia.

Txipre'n elendar odoleko jendeek eta trukitar odolekoek ez dabe alkarrekin bizitzen jakin. Okasiko ote dogu emen espñiarrek eta euzkotarrek alkarrekin bizitze ori? Lortuko ote dogu guk, ango elendarrek lortu ez dabena, atzerritarrok euskalduntzea?

Egia da, an, atzerritik su ematen ari izan dirala barrenko biztanleei: Bai Grezi'k eta bai Turki'k beren endako txipretarrei buru-muiñak berotzen ari izan dirala. Emen ere izango dau gure arteko atzerritar jendeak zeiniek burua berotu. Ez al dira ortan ibiltzen, lotsagabeki, bai peseotarrak eta bai fragatarrak ere, auteskunde-aro bakoitzean?

Elendar jatorrikoak eta turkiar jatorrikoak nai-ta-naiez bizi bear dabe ugarte batean: Txipre'n. Laterri batean ez ba'da bi Lateterritan. Baiña, Txipre'n.

Euzkadi'n ere, lurralde batean, zatitugabeko lurralde batean, edo bi zati egindako bi lurraldeetan, bizi bearo dogu gaurrezkero euzkotarrok eta enera etorritako espñiar odolekoak, Lurralde batean edo bi lurraldetan, baiña be-tiere ¡Euzkadi batean!

Arazo ontan, indarkeri oro, zakarkeri guztiak, kaltegarri ditugu. Euzkadi barren-guda batetik gorde nai ba'dogu, Euzkadi bi zati egiña izatetik salbatu nai ba'dogu, naitanaiezkoa dogu, gure arteko atzerritar oiek euskotartzea, eta, al ba'dogu euskalduntzea.

KARLISMOAREN 150n.

URTEA

Aurtengo urriaren 2'an, leenengo aldiz karlistak altza ziranetik, mende ta erdia bete da.

Fernando VII'garren erregeak, jazorikoak ondo ezagutu eta gero, erre^g uaren oñarrizko legeen aurka, bere eriotzean Isabel elabea tronuan jesarri izango zala arabagi eban, bere anai; Karlo'en ordeztu. 1833'ko iraillaren 29'an, Erregea il eta gero, Talavera de la Reina'n, D. Manuel Maria Gonzalez'ek, D. Karlos V'aren alde jaso ebazan banderak urriaren 2'an.

Buru-zutiketa a, laster zabaldu zan España oso-tik zear. BaiñG araupeko gudarosteak, beaster, amatau eben, lurra de batzuetan izan-ezik; adibidez Euskalerrria'n.

Emen urriaren 3'an zutiketea jazo zan. D. Martin Landakoa kapitanak Karlos V ari España'ko Erregetza oiutson ta baita Valdespina'ko Markes Jaunari deitu be. Ermua'tik, an egotez egoan, ta Bilbao'ra abiatu zan. Valdespina ta D. Karlos'en alde deiera bat izenpetu eban. Jaurerriaren aldunak Batiz, Zebala ta Novia de Salcedo'k be, izenpetu egin eben.

Urrengo egunean —urriaren 4'an— Orduña'n altza zan Ibarrola'ko Juan Felipe. Ona emen beste altzatutako euskaldunen izenak:

Verastegui'ko Valentin jauna, urriaren 6'an, Gasteiz'en.

Ladron de Cegama Santos Jauna, egun berberetan, Tricio'n (Errioxa).

Alzaa'ko Francisco Jose Jauna, urriaren 8'an Oñati'n.

Eraso'ko Francisco Benito Jauna, urriaren 12'an, Orreaga'n.

Laster gudarosteak menderatu ebazan Bilbao ta Gasteiz; indar antolatu izkillundunik ez euken karlistak-eta. Zutiketa enparauak lez, mendietatik zear iges egin eben basomutil-talde batzuk jarraitzen eutseela.

Zemendiaren erdian, karlisten lerroetan Tomas Zumalacarregui'ko (1) Koronel Jauna agertu zan. Napartarrak eskuratu eutsoen agintaritzaz. Bizkai'ko Araba'ko ta Gipuzkoa'ko Aldundiak, probintzi batkotxaren gudarien Nagusi izendatu eben bera.

Zumalacarregui'k, laster erakutsi eban, guda-buruzagirik onena zala. Napoleon nai Prusiako Federi-

ko Aundia nai Von Moltke'gaz, burua bat egiteko duiña. Basomutil-talde areik antolatu ebazan ta gudaroste itzal ta bildurgarri biurtu eban. Beragaz, sasi-erregiaren generalik onenak azpiratu ebazan.

Zergaitik altza ziran D. Karlos'en alde euskaldunak?

Eritxi azko dagoz eta baktaxaren aldekoak bere arrazoiak erakusten dabez. Luzetu barik eritxirik garrantzitsuenak azalduko doguz.

Batzuentzat, euskaldunak Erligio ta Foruakaitik soil-soillik artu ebazan iskilluak. Erregeak ajola aundirik emoten ez eutsela. Ori uste eban, beste batzuen artean, Arana Goiri'tar Sabin'ek.

Beste batzuentzat, ostera, gazte euskaldunak, Erregearen alde egin eben, Foruak zer zirean jakin barik. Onelan ida ai eban Henningsen ingles kapitana, Zumalacarregui'ren menpean urte beteko gudea eginda gero. Eritxi onetatik ur dabil Garate Justo. Onentzat, buruzagi karlistak foruzaletasuna joiazan biztuaz gudearen denparaldi luzean, euskaldunen artean burrukarako adoreari eusteko.

Obeto ulertuko dogu orduko euskaldunen egikera, bidezketasunaren (2) alde egin ebela, ba'diñogu. Bidezketasunez, erriko-legeak Jaungoikoarenaren azpian egon bear eben ta Eleizaren eskubideak itzaldur bear ziran. Bidezketasunez, arabar, gipuzkoar, napartar eta bizkaitarrak, euren foruak eutsi bear ebazan. Bidezketasunez, España'ko Erregea, D. Karlos - V'a izan bear zan. Erregeretzaren arloan, bidezketasuna zapalduten, ba'zan, zapalduta geratuko zan beste guztietan. Onelan pentsatu eben euskaldun areik ta gero edestiak arrazoiak emon deutse. Gañera, euri egokien euren Errege ta Jauna aldatzea; ta oneri Foruak eustea.

Onelan bakarrik, arlo guztiai begiratzen ba'dautsegu, erizkidetu al doguz, goian aitaturiko eritxien aldekoak emoten deuskuzan arrazoiak. Ulertu be bai, 1833'n urtean gure errietako semeai izkilluak artzeko eragin eutseen zioak.

IBAÑEZ KARLOS'ek

(1) Onelan ipinten dot, beraxek onelan ipinten ebalako. Beste izenagaz, euskaldunak izan-arren, erizpide berbera jarraitzen dot.

(2) Bidezketasuna: legitimidad.

OLE RTIA

LARREAN

GIROA

Urtero lez Kristo Errege'ren egunean ospatu dogu alaikiro Euskaldunok olerkiari damotso-gun egun zoragarri au, sasoi onetan eskatu leikean agualdirik onena lagun genduala: Giro epela baiña egokia, barruko garrak geroago ta beroago egin dauna.

Goiz-goizetik, Jerardo Bernaola adiskideari esker, bere berebillean eldu giñan ara. Beste olerki-zaleak, Bizkai'tik geien eta Gipuzkoa'tik be polito larrea'ra abiatu ziran.

* * * *

ON-ETORRIA

Aita Santi Onaindiak damotse

guztai «on-etorria» txeratsu beti lez.

Mezatarako denpora-alditxua dago eta Aita Santi'k dei egin daust, biok lekaidetxeko baratz zabal-ederrean zear ibillaldi pozkor bat egiteko. A bai baratz-inguruko bakea! Benetan atsedentoki pozgarria!

* * *

URRUTIKUSKIÑEKOAK

Bion •arteko alkartizik mamin-tsuenean gengozala, ordu-erdiren bat gerotxoago, Euskal Urrutikuskiñekoak agertu ziran, Olerti-eguna dala-ta argazki batzuk aterateko.

Gure ustez ez da oraindiño ordu egokia eurentzat eta argazki

batzuk gorabera ez daroe gauza aundirik.

Datorren urtean, Olerti-egunean, ospakizun berezietan, zidarezko ezteguak beteko diran ezker, telebistar oneik olerki sarituen batzarrera sartzeko asmoz gagoz.

FEDE-OSPAKIZUNA

Amaika ta erdietan Kristo Errege Eguneke mezea.

Beti lez, euskal-abestiz gaiñezka. Aita Santi Meza-emoille eta Luis Arostegi oartzaille. Onenak izan ziran irakurgaiak eta itzaldi mamintsua.

Mezearen asieran Bernaola bere oitureari jarraituz, altare aurretik bertso sutsu batzuk abestu ebazan eta bardin meza-erdian aita Txanton Goiria'k.

Amaieran, eleiztar guztien abostez «Agur Jaunak» abestu, zan.

OLERTI-BATZARRA

Gero Olerti-eguneko batzar berezia lekaide-etxean bertan. Aurretik liburu-saltzea egin da: Aurretan batena baiño ez, «Gernika'ko ArboLa» deritxon Aita Txanton'en antze rki aberkoiaarena.

Josu Altuna Galdako'tar euskal-idazleak eskiñi ebazan eta mordo bat saldu.

Bizkaiera jator jatorrean idatzia da liburua, irakurri bearrekoa, eta gaiñera merkea, 100 pezeta.

Batzarrean maikoak Aita Santi Onaindia, ta Balendin Aurre-Apraiz izan ziran epaille bereziak, zuzendari ta aztertzaile Luis Arostegi aita zala.

Maiko izan zan, baita, igaz lirika-saillean saria eroan eban Zubiri'tar Iñaki olerkari zolia be, baiña bere ez-etortea aldiz agertu eban Sabino Arana'ren omenezko jai-aldira Sukarrietara joan-bearra izan ebalako.

Aurrerantzean ospakizun bi oneik batera izan ez daitezkan eta zor jaken zabalkundez eta arrakastaz goratu dagiguzan, gure Olerti-Eguna aste bat aurreratuko

dogu, Kristo Erregeren aurreko igandera.

SARIAK

Olerti-Batzarrak, beti lez, zati bi izan dauz: Sari-banatzeta ta sari-rituak irakurtea eta Manterola'tar Gabirel'en omenaldia.

Olerki-sariketarako aurkeztu diran lanak asko izan dira, gai oneri buruz beste toki batzutara agertu diran baiño geiago eta mamintsuagoak be bai.

Ba-dakigu olerki-saillea ez dala erreza. Iru talde daukaguz: Olerkariak edo goi-maillako «poeta»k, Erdi-maillako olerkariak era bertsolariak. Oneik olerkari guztiz onak izan arren, Guren arlo berezia arruntagoa dalako.

Baten batek, irri-barez esan leike bertsogilleak be ba-dirala, baiña edeslari au ez da auzi orretara sartzen.

Eusebio Erkiaga'k atera eban lecnngo saria. Olerkiaren izenburua «Gorbaiera zoazie». Luze-samarra da, baiña ondo taiutua. Aita Santi'k irakurri euskuzan aapaldi batzuk eta Aita Arostegi'k egin eban azterpena.

Bidaguren jaunarena izan zan bigarren saria, «Koldar» izeneko olerkiaz, olerki ederra ta oldozpen trinko ta barrukoiaz ornidua. O-sorik irakurri zan eta Aita Arostegi'k aztertu eban sakon.

Poema-saillean bere «Arratsabar orrazia»z oso ezaguna dogun Martin Ugarte'k irabazi eban, ia bati lez, eta zati batzuk irakurri ziran.

Bertso-saillean saria erdibana-tua izan zan Azpiri J.^{ef}ren eta Be-

loki J.^aren artean. Izen-buru biak «Txikitatik» Azpiri'rena eta «Aitona» Beloki'rena. Beloki J.^aren ordez bere arrebeak jaso eban saria.

OMENALDIA

Gabirel Manterola'ren gorape-nezko jardunean Aita Santi'k bere bizitzako jazokizumik beiñenak azaldu ebazan, zelako eleiz-gizona, olerkaria ta abertzalea zan agertuz.

Bertaratu giñan askok ezagutu genduan abade langille au. Bere olerki-txorta bat 1921'e an agirtarata ikusi genduan eta Aita Santik irakurri ebazan batu giñan guztion pozerako. Batzuk olekirik politenetarikoak ziran.

BAZKALTZEN ETA BERTSOETAN

Ondoren, inguruko jatetxe baten alkartu giñan bazkari ugaria, gozoa eta ez ain karua jateko.

Aurre Apraiz'ek abestu euskuzan abots zoliaz Sabin'nen abesti aberkoi polite, batzuk eta Paulin'ez bere bertso ederrak bide zirala, guztiok poztu.

Eta, Jaunkoa lagun, datorren urtera arte. Orduan aundikiro eta goi-maillan Larrea'ko olerti egunaren zidarrezko eztegua ospatuko dogu.

ARREGI'tar JOSU'k

ERLIJIÑO-ASKATASUNA

Katolikoak orain arte itsu egon gara beste gure anaiekin. Egia geure aldetik bakarrik egoala uste genduan.

Gaur eta batez be Batikano Bigarren Batzarra egin zanetik beste era batera ikusten doguz gauzak.

Erlijiño-askatasunak on asko ta aundiak ekarriko dauz.

Erlijiño-askatasuna ez da epeltasuna, ez da oztasuna. Ez da bakoitzak gura dauana sinistutea edo egitea. Ez da Jaungoikoagaz eginbearrik ez eukitea, kontzientzia libre eukitea. Ez.

Guzurra ta egia neurri baten jartzea be ez. Erlijiño-askatasuna erlijiño aske betetzeko gizonak dauan eskubidea da, bere kontzientziak diñotsana egiñaz. Beraz bere sinismena ez daukenak be katolikoak eroan leikez Jaungoikoagana katolikoak ez diranai euren diñotsena jarraitu kontzientziak dagiela eskatuz.

* * *

Erlijiño-askatasun onek daurraien onurak ekarriko leuskiez gure Euskalerrinari be: Izketaldiak eukiten, ar-emonak besteakin eukita ikasi.

Ez dabe pentsatzen onela gure katolikorik geienak.

Izketaldiok pentsaerak zorrotzutzeko, sakontzeko izango leitez. Besteak egi apur bat euki leikela esan nai dau onek naizta guk uste ez.

* * *

Gauzak ulertzen, ikasi, gure Itsukeria itzi, biotz-kemena galdu gabe.

Gure katolikotasuna agertu. Oinñarri sendoa emon berari. Adimenagaz argi ta bero-bero eroan biotzean.

Idazteuna —Biblia— obeto ikasi. Erlijiñoa ondo ta sakonkiro ikasi. Zelan maite izan dogu orain arte Jainkoaren itza?

Katolikotasuna bizi. Ez izan katolikoak auxe irakatsi dauskuelako. Nire gurasoak eta aurrekoak izan ziralako be ez.

Bakoitza obeto gertuko leiteke sinismena zaintzeko ta geiago maite izango leuke.

Abadea be obeto gertatuko leiteke, eztabidak egiteko besteakaz. Geiago ikasi bearko leuke.

Katolikoak gituitu egingo leitez paperean, baiña askoz oba. Orduan jakingo genduke zeintzuk diran egizko katolikoak.

Epeltasuna itxiko genduke. Batikano Bigarrenak esnatu egin ditu protestanteak.

Erlijiño-askatasunak be esnatu egingo leukez ainbat katoliko epel.

Erlijiño-askatasuna. Politikan be ezin pentsatu bardin danak. Eziña da.

Gizon bakoitzak bere asmoak, bere ideiak ditu ta ezin zapaldu leitekez indarrez edo beste edozein bidez.

Erlijiño-askatasuna onurakor litzake ba, gure erriarentzat be.

EUSKERAZALEAK
Colon de Larreategi, 14
BILBAO

Bazkide maitea.

Idazki onen bidez dei egiten dautsugu 1983'ko Urtarrilla'ren 26'ganean (Egubenean), gure erakundearen etxean, arratsaldeko 8'retan izango dan Oiko Batzar Nagusira, urrengo egitamuaz:

1. Lengo Batzar Nagusiko agiriaren irakurpen eta onespena.
2. Diru-egoerearen azalpena.
3. Urteko ekintzen azalpena.
4. Eskari ta itaunak.

ARETX EZAUGARRIA

(GALDACANO'N)

Antxiñatxu esan euskun Arana eta Goiri'tar Sabin gure Irakasle aztu-gabeak «Aberrija maitatuzek, Aberrija ezagutu egin biar da» idazkera onetaz idatzita.

Eta ezin iñork ukatu egi biribilla dala esakera ori. Erria naiz beste edozein gauza zenbat eta obeto ezagutu, ainbat maiteago izan eta ainbat ajola geiago emoten jakolako, norberaren gauzai ta bai-ta inguruko beste gauza guztiei bere.

Eta, ezagutzen ezba'dira, oartu barik igaroten dira sarria-askotan garrantzia daben ezaugarri asko.

Idazpurutzat jarri dogunean esan dogunez, Galdakano'n be ba'dogu aretx ezaugarri bat, Gernika'ko Zugatz donea'ren ume edo landara dana eta, galdakanotar askok orretariko aretxik dagoan be ezdakie eta gitxiago nundik eta zelan errira etorria dan.

Orixe da geien baten gaurko gure idazlantxu onen bitartez erritarrai ta baita Euzkadi guztiari adirazo nai dautsoguna.

Andra-Mari'ren eleiza zar erromaniku inguruan, txadon orretara eldu baiño irurogei bat neurkin lenago, lareun edo bosteun urteko aretx zar-zar bat egon zan, benetan galdakanotarrak maite ebena, antzinako aldietan egiñenakaz erakusiten emon ebenean, Karlataran lenengo gudaketan, Andra-Mari inguruko zelekadan aurkitzen zan guarosteak sua egiteko edo egurrak bear zituzan eta, aretx ori eratsi bear ebelata asi ziran lenen abar batsuk kentzen bai-

ña, bertan batu zan ainbat galdakanotar eta gelerazo egin eutseen.

Asua'tarren basetxe aldameanean, belar-landatxu baten aurkitzen zan aretx ori eta gaur-egun errian dogun Udal-etxe ederra egin baiño lenago, zugatz zabal orren gereizpetan batzartuten eiziran erriko agintariak, bear ba'da eriko zarrenak, jakiña! Eguraldi ona egiten ebanean eta bestela oraindiño be eleizpean aurkitzen dan arrizko mai-inguruan, erriko arazoak erabagiteko.

Batzar orreik aldendu ta urte asko geroago be, ea ;ure aldira arte, mezatara joaten ziran erritarrak, geien baten baserritarak, asteroko euren ar-emenen barria adirazoz barriketatueta aretx orren gereizpetan batzen ziran, mezarako aldira arte. Eta, orduantxe bear ba'da batonbatek «Guzur-aretxa» izen-orde lez ipiñi eutson. Geiago izen orregaz ezagutu zan aretx entzutetsu ori..

1934 urtea uste dot izan zala, erriak auteskunde bidez aukeratu-tako Endore ta zinegotzi jeltzale guztiak geldi-erazi (suspende) egin zituan España'ko jaurlaritzak eta, atzamarrez Sagarminaga'tar bat ipiñi eben «Alkate», zorionez ez luzaroko baiña, beste txatxukeri askoren artean aretx ospetsu ori eratziteko baimena emon eutson «tripekada» bat eskiñi eutson bateri, ziurki ez ekielako aretx orren edestia edo, gorroto euzkotasan guztiak ebazako.⁴

Aipatu dogun baimen ori 1936'ko Epalla'ren 6'an emon eben eta bereala eratzia izan zan aretxa.

Epail orretan berean, aretxa eratu ta egun batsuetara, barriz benetako Endore ta zinegotziak euren aginpidean aurkitzen ziran

eta, lenengoz batzartu ziranean erabagia artu eben «Guzur-aretxa» egondako tokian bertan Gernika'ko Zugatzaren landara bat sartzeko. Eta, alantxe egin zan Epail orren 24'an, baiña, udabarria pizkat goratuta aurkitzen zan ezker, landara orrek kurra ondo ez ebela artuko bildurraz, iru landera ekarri ziran Gernika'tik, lenengoak artzen ez ba'eban beste bat beren tokian sartzeko asmoz.

Zorionez irurak lur-artu eben, Guzur-aretxa egondako lekukoak eta Lurgorri'ko mentegitxuan sartu ziran biak, guda aldian azkenengo betariko bat igertu egin zan eta, beste biak ederrak egiten jarraitu, bat gaur arte.

Orain urte gitxi baiña, beste «Alkate» atzamarrez egindako batek «Guzur-aretxa egondako lekuan egon zan aretx mardula sustarretik atera eratzia eban, eleiz erromaniku inguruan egin eban zalaikada egiteko enberazu egiten ebala (guzurra) atxaki lez esanda, naita euzko-odolekua izan «alkate» ori, euzko usaindun guztia gorroto ebalako. Zorionez ez-ekian besterik Gernika'ko zugatzaren beste kimurik egoan gure erri onetan, bestela ori be eratziko eban bear ba'da.

Beraz, irakurle maitea eta galdakanotar jatorrak, aretx eder bat dogu Galdakano'n, Urigoiti'tik gora Altamira ta Pedrola basetxeatarako bidean Lurgorri izenaz ezagutzen dan mentegitxuan, oso mardul eta guri, bera ikusten dabenen arrigarri ta pozgarri.

Galdakanotarra, euskotarra, ezagutu zeure inguruan dozuzan edesti ta ezaugarriak, atzerritar jakitunak guztiz bikaintzat daukazanak.

ALTUNA'TAR JOSU

OLERKARI SARITUAK

(Larrea, 1983-11-20)

Edozer gauza jako edergai egiaz olerkari danari. Ipar-orratz lez bizi jarri oi dautso zer orrek mundu dardarati bat begien aurrean. Azal ta marnin lillura

Eta lillura orren sorgiña azaltzeko beste ba'da, olerkariak bai poesi-lan bikaiñak egiten! Oni deritxogu benetako poeta, besteak sasi-poeta dirala aur

Zergaitik diñot au? Ba-dot orren errazoi-egia. Egunokaz Larrea'n ospatu dogu olerki-leiaketa. Urtero, ogetalau bider, ospatu dogun lez; bai, a irten be, azaroaren 20'an egin genduan dalako jaiia. ata, egia esan, olerki eder ganoraz landuak askotxo eldu jakuzan. Or zergaitik diñodan eta autortu egia:.. olerkari danaren sena ta trabetasuna, ederra jaso ta azaltzeko: sentidu arren, edonor ez da gai barruan somatua adierazteko.

* * *

Oleri-sariketan iru sail izaten dira geienez: lirika, poema ta bertso-saillak. Irurok be oparoak olerkitan. Emen ba-da zerbait: lanak ona bialtzen dabezanak ez diardue diru-gosez, beste zenbaitek eraginda baiño.

1959'an asita ospatzen dogu Oleri Eguna, gerra aurretik EUSKALTZALEAK ospatzen eben lez; arrezkero aldatu jaku zerbait mundua, ekonomi aldetik atan be.

Orduan iru sari ipiñi genduzan: lirika- saillekoari milla pezeta, poema sailleko irabazleari milla pezeta ta bertso-saillekoari bosteun pezeta. Aurten be sari bardiña jaso dabe irabazleak. Alan be Ian ugari jaso ditugu.

Ona salatu bearrezko jokabide zirtzilla. Gaur poesi-sariketa asko ta galantak daukaguz Euzkadi'n; baiña ez da orrenbeste olerki-lan agertzen, zoritxarrez.

Zer dala-ta?

Askok, dakigunez, ateak itxirik daukezalako. Ezin jaritxi barruko aretoraiño eltzea, edo ta. eldurik be, zarpaintzat jota kanpora egotziak ba'dira, eziñekoa saria eskuratzea. Onek kalte ikaragarria dakatso euskal olerkiari.

Larrea'n oneik izan ziran sarituak, epai-maikoen ustez onenentzat joak: lirikan, E. Erkiaga'ren « Gorbaiera zoazie ?» Kukupraka giltzapean, eta Arratia'-ko Gabirel Manterola'ri eskeiña. 25 aapaldi daukoz. Luze samarra maikoen eritxiz, poesi lirikuak l[^]bur, bizi, txinpartatsu ta mamiñez jantzia izan bear daualako.

Gorbaira doa olerkaria, aldatz-gora, makilla eskuan eta gazte bat aldamenen. Kantuz doa ta or leenen San Juan ermitea, asabak itxitako «ekandu ezagupidea»; lur zabalak ikuspegian, pagadi ta arezti lerdanak, aizearen firi-firi leunak, ardien arran-otsa, eguzkiaren sorgin- diztirak adar-artean, lamiñen eragiña, ara-onako bidezidor ezkutuz beteak, goi urdiña... arranoak kantatzen ditu. Onein egoak nai leukez, induruak sortu dautsozan sentipenak adierazteko. Ona berak:

*Hegazkadak egiteko
haek daben lumea
baizen sendo ugaria
balitz orain eta gero
nik dodan idazte-tresnea,
arin, guntsua, jorra,
haen hegaden pare joan dadin
nire asmamenaren haria,
begi-belarriak erme,
arimea orekan,
irakiten edermana,
horraitino haek ez daben
txiruliruli ta txinta Pina
enegan izanik,
horixe gura nik.*

Mokortua joian gorantz. Eta; uste ezik, ardi-bi-dea galdu ta arri artean jausi da; bai ba, muga guztiak arakatu bearrez, eta ederraren ederrez, zorabio zoroak artua ebillen. Jausi da, azkenik, eta «belaunak minez». Lekanda eskuman, arro, bere aulki goitian. «Zazpi neke ta zazpi atsedean» Arraba'ra eldu dira, «Gorbaie esku zabalak / eskeintzen euskun alaba, / ederretan ederra, / asaben batzarleku, / ames amesgarrien / amesezko eremu». Igiriñao'n dagoz, an osatu ta aterpea, eta sutondoa.

Gero, barriro joan zan olerkaria Gorbaiera, jakin-miñez. Gerratean antxe atxilo arturiko iru gazte il ebezan; arein, il arein barne-arnasaz asetu nairik, egin eban osterea. Berak onela:

*Bigarranez joan nintzan
hurrengo urtean,
garagarrilaren
hamazorgarrenean,
gure Aberrian
negarraldi luzea
hasi zanean;
hantxe harturiko hiru gazte,
lehenengo hil-opariak
dodaz oroimenean.*

Aipamena eroan eban beste au be, lirika sailleko amalaukoa, ez dogu montxor. Maikoak *onan*: «*indartsua, trinkoa, argi ta zintzo jarten dau biziaren auzia; sentimentu neurtua, eratu*». Irakur:

*la galdua daroat gauaren mailladia,
neure lepoan eriotz beteko zorroa.
Beingoan da ene bertsoen azken-lerroa.
Ba-datorkit —abots igar— ixillen aldia.*

*Eskura nai neuke lur osoko illundia,
betiko ixildu bere eresi arroa,
goiz diztikor biur dakidan Egun-Aundia.*

*Neure uzta-bildu joen azaoak errez
—kolko mandioan urri ale eta garau-
illunaren zuloak argitu gura neukez.*

*Alperrik esku-gorak, beti ni argi-barau,
ez aizerik, odolik, ez kemenik, ezer ez;
bildurrak lapurtu deust borroka lera au.*

Gernika Anjel Bidaguren'ena dozu, «Koldar» izanarekin.

Poema txortan Martin Ugarte'ren «*Arrats-ñabar orrazia*» sariztua. Euskera eder oparotsuan egiña,

nunbait. Iru ataletan zatitua. Iduzimez eta sentimentuz ondo oretua. Baserrian bizi da egillea, toki zoragarrian; eta arrats ñabarrez, eguzki, zugatz, lamiñaz sorgindua, idatzi ta idatzi poema punterengoa osotu dau. Zazpi folioko poema. Onako ainbat ditu Ugarte'k, amabi-amabost bat bai, argitaratzea merezi leukienak.

Onela amatzen dausku poema, bizi-poema:

*Gau beltzak eguna egapera,
baiñan abian biaramona.
Zugaitzak ere urte-mugaro
orri-berritan panpox dagona.
Eta gizonon arrazoi bide...?
Sinistek onen erantzuna...*

Sail onetan Agustin Beloki'k ere izan du aipamena. Aren «Kezkaren labe sua» ederki taxutua dozu. Euskerak arduratzen dau, eta noraezean dabilkigun gaztediak.

Irugarren saillean, bertsolari maillakoan, bi nabarmendu dira batez be: Joxe Mari Azpiri ondarrutarra eta Agustin Beloki legazpitarra. Lenengoanetik bat aukeratu da, «Txikitatik» deritxona; mariñel bizitza kantatzen dau bertso labur, trinko ta ondo eratueta. Bigarrenaren «**Elorri-lorak**» txorta polit bat dozu, arduraz eioa, pozez ta samiñez gantzatua; elorriak, izan be, arantzak ditu lore ederrez jantziak. Txorta onetatik aipagarrien «Aitona» deritxona.

Beloki'ren lanak, maikoen eritxiz, bertsolari-senez ta doaiz beteak izan arren, ba-dabe gatzeta ta umorea (Ardoaren koplak, Bidean topo ta abar); eta orrela *oleskari maillan* agertzen jaku, bertsolari ta olerkari artean dindilizka legez. Zer da, baiña, oleskari izatea? Dei egitea, ots-egitea. «Olesa ta ate jotea da, nor ete dogu?» diño Mogel'ek bere «Peru Abarka»-n.

Oleskariaren zeregiña, beraz, erriari dei egitea da; gizartearen akatsak zigortzea. Zigorrik ez darabilen aita, ez da egiazko aita, diño esakun zaarrak. Naiz olerkari, naiz oleskari, naiz bertsolari izan, iruron zeregiña lo dagoana itxartzea da; oleskariarena batez be. Ori egin eban Enbeita'tar Kepa'k, gure Urretxindorfak; ori gaur Basarri'k, orixe Beloki'k be.

Labur: ederto aurtengo Olerti-Eguna. Datorren urtekoa, J. L., ospe aundiagoz egin bearko. Ogetabost urte beteko; beraz, zidar-ezteguak. Zerbait da, nik uste. Biotz on, guzti-guztiok!

BERTSOETAN

SINISTEN

*Jainkoa sinisten dot
berezko bizi,
misteriozko itza
Irutan Bat Bakarra
Jaun nausi.*

*Gogo izate utsa
zara arrigarri;
oroz goitik daukazu
nortasun betikoa
ongarri.*

*Ao biko ezpata
da zure mintza;
zoli, sarkor, bizia,
berez, daki zulatzen
biotza.*

*Nundik dator abotsa,
ain illezkorra...
neu naz zuen Jaungoiko,
bizi, adierazoz
gogora.*

*Jainkoa egaz dabil
zeru lurretan,
ezer ez bera barik,
edur eskua dauka
aidetan.*

*Itxaso zear doa
udabarrian,
pozezko jantzi barriz
ur danak menperatzen
bakian.*

*Mendian zabilza, Jainko,
esku lanean,
bizi barria sortzen...
A ita Sorlea daukat,
aurrean.*

*Gizonen urratzetan
dabil Jainkoa...
jakituria zaintzen,
maitasunez poztuten
gogoa.*

PAULIN

NEGUKOA

Ruben Dario'rena

*Negu-ordu luzeetan, ara Karolina
besaulkian, nekeak etzana, erdi-kikil,
pitotx-narru arteko berotan bil egina,
egon-gelako sutondo argiaren urbil.*

*Alboan, Angorako katar zuri pinpina
area A lezon'go gonak musukatzen dabil.
Urur txinatar murko ederrago ezina,
Japongo seda-atearen bestalde ixil.*

*Xarmadura emeak dakartso lo ezta;
barrura naiz ixilik —kakoara txartesa-
musuka noa bere matrail zoragarria,*

*zuri-gorri, lore eder, liii ta larrosa.
Ixartu da; ene adi bere so-argia.
Bitartean, Paris'en, goitik, edur matasa.*

ANJEL BIDAGUREN ARRIEN

GAIXO E NTZAT

*Gabon inguru eltzen danean
gure biotzak poz bete
Jesus umia dator gugana
Ume txiki ta erruge
biotz guztiak urduri dagoz
zatoz goi-goitik kantari.
Gaixorik • nago egun luzetan
bakar saminez beterik
zu zara Jesus txiro maitalle
Nor txiroago mundu onetan
gizaki gaixoak baño?*

*Zure askatxo ipiñi arin
gaixoen oe ondoan
zure eskutxo leun bigunakaz
bigundu nere saminak
garratz-garratza gure bizi-
tza*

*Zure itzakaz indartu
arrisku aundi gaixotasuna
itxaropena galtzeko.
Ez neuke nik nai olakorikan
Zugana laster eltzeko.*

*Nire bertsoxoak gaur
Otoi biur dira
Entzun arren Jaun Ona
Emen naz begira.*

*Nire samin ta miñak
aundi garratz dira
artu Jauna erantzun
Au da nire deia:*

*Zaindu A ita Santua
eta Elizea
Orretarako dira
nire otoi ta eskintza.*

*Emon bake ederra
gure aberriari
Gazteari kemena
adore erriari.*

*Eguzkiak urten bei
gure erri maitean
zaindu bear bageak
dan-dana ebatzi ta.*

*Dana zure eskutan
dan-dana ebatzi
dana zure eskutan
gaur eta sekulan.*

GALLASTEGI'tar
KAULDI

IRI, ADITZ ORRI

Iri, aditz orri, zerbait esateko asmoz ñatok gaur. Aspaldiko partez. Eta adiskidetasunez.

Eu be pertsona baintz legez egingo daustat berba. Ika egin be. Adiskide kutun.bati onelantxe egiten jakok berba. I kutuna, izan be, niretzat beti izan az-eta. Gaur be baaz-eta.

IZAN eta EGON

Leenengo aitatu gura dodan gauzea auxe dok: zuok, *izan* eta *egon*, aditzak bata-besteagaz burrukan zabizela. Alkarri lapurretan diarduzue. Iñoren arloan triskantzak egiten. Ez dozue zuotariko bakoixaren barrutia jagoten. Eta ori etxak bape ondo.

Ara:

Atzo ni mezatan *izan*. nintzan.

Gaur goizean Bilbon *izan* naz.

Nun *da* aita?

Aita mendian *da*. Eta abar.

Onelango adizkirak beti-beti entzun izan joadaz nik. Neure bizialdi guzti-guztian.

Baiña gaur?

Gaur beste adizkera ganorabakook entzuten joaguz edonun eta edonoiz:

Atzo mezatan *egon* nintzan.

Gaur goizean Bilbon *egon* naz.

—Nun *dago* aita?

Aita mendian *dago*. Eta abar.

Izan aditzaren orde, *egon* erabilten joagu, *izan* aditzaren barrutian lapurretan egiñez.

Oker au gaztelaniatik datork. Ori bajakiak. Gure euskera au gaztelaniagaz etenbako artu-emcnetan bizi dok urtetan eta urtetan, eta izkuntza onen eragiñez zabaldu dok uts ori.

«Ayer estuve en misa», «esta mañana he estado en Bilbao», eta onango esaldiak entzun eta entzun egiten doguzan ezker, gaztelaniazko «estar» ori zuzen-zuzenean edo itzez-itz itzultzen joagu euskera, «egon» aditza erabilliz itzuli be, eta, orregaitik, *izan-en* barrutian barrabaskeri aundi bat egiten jiar-duagu.

Gaztelaniazko «estar» aditza eta euskerazko «egon» ez dozak ideako. Euskerazko *egon-ek* gaztelaniazko «residir» geiago esan gura dauala esango ñeukek, nonora egin daiteken unetxo bateko edo joan-etorri utsa baiño.

Dana dala, *egon* aditz ori, lapurretan abil i, *izan* aditzarena dan barrutian ozka eta atzamarka. Oba dozue baketan bizi, eta bakotxak bere arloa jagon!

PUXANA'k

Irarkolako lan-izteak gure zenbakiak atzeratu dauzalako, eta ez beste ezergaitik, urte onetako azkeneko zenbaki bien orde doatzu, irakurle, gaurko zenbaki au, eta orrelan be pizka bat atzeratuta goaz, baiña aleginduko gara urrengo zenbakiak bakoitxa bere sasoi bialtzeko.

IDAZKOLAKOAK

PUXANA

*Asi nadin diñot eta, eztakit zelan asi
gogoz emondako itzaren zorra ordaintzeko;
baiña, asi egingo naiz bai, euskalkide bati,
neure agurrik beroena biotzez eskaintzeko.*

*Esakunak diñon lez: rAsiak egiña dirudi»
baiña, nik, egin nai neuke, egin, edertasunez,
zuk dagizun lez ain biziro, maixu agurgarri,
idazkera argikoi baten eredutasunez.*

*Orretan diardut neure alegiñak egiñik,
edur zurizko paperean biotza ezarriz
eta, bertan, izpi argiren bat fjarri nairik
benetako soindurazko oldozga' adigarritz.*

*Itz bizi, egokiz, alik labor, alik argiren,
benetako azalpen giartsu eta t rinkoenoz
On Pedro Puxana, Oleta'ko seme zintzoaren
izena nai neuke goratu betikotasunez.*

*Aren euskal senaren sendotasun giartsu,
aren etengabeko ekintzarren goitasuna,
aren abade izatearen errikoitasuna .
nai neuke bat, alik egokiren neurtitzeratu.*

*Jantzi apaiñez soiñekotu, laztanki goratu
aren izena, benetako arduratasun zindoz
nai neuke, egokitasun maitez gizarteratu
aren izena, benetako aintzamen eta gogoz.*

*Aren umetako Oleta, aren gazetako
Gasteiz ta Apaiztegi alderantzia urreratuz;
aren Eskeriatza, aren Angiozar ta Morga'ko
arimazain-aldiko igaroa gogoratuz.*

*Orduko baserri nekazaritza eraturaz,
orduko laia ta golde, orduko ikuspegiz
goazen garitza orizkatu, artotza orlegiz
orduko gau-egunen argi eta illunduraz.*

*Goazen orduko gaztain-arlo, arte, arizpez
gaurko piñuetarañoako munduaren aldaketaz,*

*ta galdu izandako ameskizun guztiekaz
txorta aundi bat egiñik lengo gatz ta ozpiñez.*

*Ta, igarobide ortan daurkigu abade bat
gogo-biotzez euskereari betikoz emona;
benetako abade ta benetako gizona
gure elerti eta gure erri maitearentzat.*

*Orain Arteaga'n darrai aren abade biotza,
aren onbidezko artzaintzaren zuzentasuna,
aren erritantesunezko langintza ta egoitza
musaldiko batzukaz onduriko gaitasuna.*

*A rabar jaterrizko gizaseme goralgarri,
euskel alorreko ikastun ospetsu, Iangille;
benetako euskaldun, benetan gomutagarri,
euskera laztankor ta irauingariaren lankide.*

*Gramatikalari dogu Bizkai'ko izkelgiaren
aztertzaile sakon, jakituriz oñarritua
eta daukagun lenengoko Bizkai'ko Foruaren
itzultzaile bikain, edergarritz ongarritua.*

*Beraz, zure egintz neketsu orren argidura
dizdikor, laztan ori eda, iturritu bedi
ta, ur bizi esasungarri orren ikutura
EUSKERA burutu bedi bai betiraungarril*

Muniategi-tar Sabin

Donostia'n 1983-gko Loroillaren 15'an

1984'ko urterillean asita ZER gure aldizkaria-
ren arpidetza 600 pezeta izango da. Orretara
beartzen gaitue Irarkolako ordaindu-bearrak eta
urtero bizitzan izaten dan gorakadeak. Gure ira-
kurleak 100 pezeta igote au ulertuko dabela-
koan, biotzez agurtzen zaituegu.

ZER'EN
DIRUTZA - BATZORDEAK

"BERMEO" ALDIZKARIAREN AURKEZPENA

JAUN-ANDREOK!
Arratsaldeon!

Bermeo gure erria, antxiñako erria da eta alde batetik zarra dalako eta beste alde batetik gizabidez aberatsa dalako, bere burua ezagutu eta ezagutze ori mundura zabaltzeko egin-bearra dauko. Samingarria da, izan be, zeren jabe dan, ez dakian erri baten egoerea!

Gizabide ta gizarte-arloan gizaldirik gizaldira ta urtetik urtera aldakuntza aundiak eta aurrerapen gogoangarriak izan dauz erri onek. Antropoloji aldetik, Euskal-erriaren barruan jakingarri asko dauz, erlejiño-gaietan dauan berezitasuna ukatu-eziña da, lan-bidean, arraintzan, eta jakintzan badau zer-esanik eta zer erakutsirik asko. «Bizkai-Buru» izena arlo onetan geiegi ba'da be, zalantza barik ba-dago erriaren barru-barruan erriak berak be ezagutzen ez dauan aberastasuna.

Baiña ortxe dago ba erriaren arazo mingarria: Norberaren burua ez ezagutzea. Tamalez, agiri zarrak erre egin ziran eta Bermeo'ri buruz idatzita dagoana gauza gitxi ta laburra da.

Eta nok ukatuko dau erriak dauken norberaren burua ezagutu bearra? Ete dago beste biderik erri bakoitxaren nortasuna aurrera aterateko?

* * *

Baiña itaun orreik alperrikoak izan ez daitezkan, beste au jakin bear dogu: Nor arduratu da lan ori egiteko? Ba-dagoz kondaira-Ian batzuk, esaterako lenago Iradi'k egiña eta azken-egun oneitan Anasagasti'tar Pedro'k egin eta oraintxe Udal-Batzak argitaratze-

ko daukana. Eta Labayruk. Iturri-za'k ta olako kondaira-zale orokor-rrak egin daben lana; ba-dira aldizkarietan an-or-emen egin, diran argitalpenak edo erriko jaietarako argitaratzen dan egitarauan agertu diran Ian jakingarriak; aspaldion Ikastetxe Nagusietan egin diran eta Bermeo'ri buruz diran tesinak eta olakoak, baiña ori ez da ezer begien aurrean errian ikusten dogun jakingarrien aberastasunaren ondoan.

* * *

Bermeo'ko Udal-Batzak arazo ori ikusi dau eta Jakintzarako Batzordea bide dala, UETENA taldea ta banakako lagun batzun laguntzaz, Aldizkari bat argitaratzea asmau dau. Orrelan jaietarako egitarauak bere zeregiña izango dau: Udal-Batzaren arazoak eta onek dauzan batzordeen lanak eta eginbideak agertu eta jaietarako arauakaz batera erriari jakingarri batzuk emon. Baiña jakintza-maillako lan zabal eta sakona, BERMEO Aldizkariaren kontura geratzen dala.

Eta ori orrelan izanik, norentzat da Aldizkari au?

Lenengo Bermeo'ko erritarrentzat, erriaren nortasuna ezagutu dagien. Urrengo billatzaileentzat euren Zanak agertu dagiezan eta besteanak non aurkitu izan dagien, eta gero, baita, Euzkadi guttiarentzat, gure kondairako eta gizabideko ondasunetan kideko izan daitezkan: Artu eta emon da jakintza zabaltzeko bidea. Eta Euskal-erriak munduko aberrien artean be, Ian ori egin bear dau.

* * *

Aldizkari bakoitxa iru zatitan banatzen dogu: Erriari buruz di-

ran jakingarriak, Itxasoari buruz diran billaketak eta barri laburrak. Gai oneik azaltzeko urtero agertzen da, 500 orrialde inguru dauzala.

Orrelan an-or-emen ebiltzazan billaketa ta idaz-lanak batera eskuratzen dautsoguz erriari; orrelan billaketa-lan barriak sortzeko billatzaileak bultzatu egiten doguz: orrelan erriari zor jakon jakintza ta barriak emoten dautsoguz.

* *

Aldizkari guztiak dabez euren arazoak mundu guztian, eta ez gitxiago gure Euzkadi maitagarrian. Gureak be bai.

Idazkolako lanak dakarren arazoa, lanak batzeko. bakoitxa bere lekuan sartzeko, irarkolara eroateko, zuzentzeko ta alar.

Zabalkundearen a azoa, arazo aundia ta sakona: Aldizkariaren barria emoteko, arpidedunak egiteko, orretarako koi lunikabideak eta izparringiak artzeko.

Eta, au arazorik lodiena, aldizkariaren gastuak ordaintzea, batez be erri txiki onetan aldizkariak gitxi zabaltzen dirala irarkolako lana oso karua izaten dalako.

«Bermeo» Aldizkariak be bere gaiñean izan dauz eta gaiñean ditu gaur be, arazo guzti oneik.

* * *

Baiña ekiñaren ekiñaz. aurrera egin dogu eta zenbaki bi banatu doguz joan diran urteetan. Ona emen gaur irugarrena.

Geiegi ez da zabaltzen, ordainketa al dan lez egiten da, baiña aldizkaria or dago, argitaratu egiten dogu.

Irakurleai eta emen diran entzuleai, amaitu baiño lenago, eskari batzuk egin bear dautseguz: Egin doguzan utsen eta daukaguzan oker-bideen barria jakin-azo eigu-zue, ditugun alde onek be agertu eigu-zue, emen agertzeko lako lanik egin al dozuenok egin eta bialdu eigu-zue.

ESKERRIK ASKO.
OLAZAR'tar Martin'ek

IZADIA ASARRE

*Gizadia gizonaren menpean dagonean edo bere neurrian dato-
rrean, dagonean, orduan gure-
tzat lagun aundia da eta onga-
rria.*

*Alan, ur, sua, aizea eta abar,
bere neurrian ibiltzen diranean
gure mezederako izaten dira.*

*A gorrillaren askenetan etorri
dan lez, URA gañezka, asorretu-
ta, arpegi illunagaz eta egitade
txarragoakaz, kalte izugarriak
egin dauz Euskalerriko baster
guztietan: Uri aundi eta txikie-
tan, lantegietan, zelaietan, soloe-
tan, dendetan...*

ZERGAITIK

JAZO YAKU ORI?

Kalte izugarri orreik izan dira:

*1.º Itxasoari edo itxas ada-
rrari ostu dautsogulako, beti be-
reak izan dan lurra.*

*2n. Gizonak, ondo-bearrez,
gauza-asko txarto egin ditualako.*

*3n. Ur orreik igaro diran bi-
deak, oso loi eta zikinduta egon
diralako, geure izadia, oso txarto
gorde dogulako.*

*Askok diñoan- lez, geure zikin-
tazunak galdu gaitu, geure errua
da.*

*Etxagintzak, olagintza asko,
oso txarto eginda egozan, odonaon,
toki badezpadakotan, erdi txintxi-
llizka, dirua ugari irabazteko.*

GURE KIRKILERIA ETA ARROPUZTAZUNA BEAN

*Uriola onek amaikatxo negar,
izerdi, Ian eder, aspiratu dauz.*

*Iru edo lau ordutan urgaiñezko
orreik txikitu, austu, apurtu daus-
kuez. Zergaitik onelan? Nire uz-
tez, larregi arrokerikin gebiltza
lako. Ezek artu eziñik ibilli gara-
lako. Jaunari aurea artuta.*

*Notiñok aundiak eta jakintsuak
izan arren, ur moltzo bat-etorri
da ta azpiratu gaitu; aoa zabalik
gelditu gara, ezertxo egin ezik,
urok ezin gelditu ta negarrez.*

*Or ibilli gara ikurriña bai, ta
ikurriña ez, umetxoak bezela arek
baiño txartoago. Azkenean zer
eldu yaku: Izadiaren asarre'a.*

*Tamalgarria da geure bizitza,
Urkoaren aurka, ikusi eziñik, ber-
ba egin barik, txarto esaten...*

*Lana egin bearrean pozez bete-
rik, alkarren leian, alkartasu-
nean, or gabiltz bananduta, ba-
koitza bere aldetik.*

BIZITZA

ZENTZUN BAKOA

*Neure ustez, olan bizitza zen-
tzun barik bizitza da ludi onetan.*

*Zergaitik? Lau egun bizi bear,
ta gure biotza samintazunez bete-
rik, atzekabez galduta. Zertarako
bizi alan?*

*Ni egon naz moroakin, judioa-
kin ta kristinauakin Afrikan.*

*Ikastolan moroak, judioak eta
kristinauak alkarregaz egoten zi-
ran, ondo konpontzen ziran, bai
jolasetan, bai txangurretan, bai*

*janaldiak edo askariak egiten ze-
laietan. An esan geiken danok gi-
ñala bardin azitakoak.*

*Eta emen danok asarretuta,
ikusi eziñik.*

IRAKATSIA

*Buru ariñck ez ba gara, maki-
Ilekada onek kaskai poli bat era-
kutsi bear dausku, auxe: Alkar
maitatzen, ba:a bezteari lagundu,
pozez jolas es in edonun ta jan eta
edan pozik zelaietan edo toki guz-
tietan.*

*Bakotzak euki leike edozein
eritxi, asmo, nai dauana, baiña
danakin ondo konpondu. Alan ibi-
li naz toki guztietan onain-arte.*

*Ondo azita dagozan notiñak,
edukazio onekoak, itzi bear dauz
aldabatera zatarkeri orreik, ziz-
trinkeriak eta sendo ibilli.*

*Orain daukagu une bat alkar-
tasunean sartzeko, batasunean
lan egin, pozez bizi ta gure Eus-
kalerra konpondu-ta goratzeko.*

*Gure aurrekoak alan bizi izan
ziran, orregaitik itxi euskuen Eus-
kalerra aberatsa, polita, baketsua.
Orain ziztrindu dogu.*

*Geure zorakeriak itzi daiguzan
alde batera, jarri gaitazan bide
onean, gero jarraitzeko.*

*Alan, bizitza onetan izango
gara jente alaiak, notin bereziak,
kristinau zintzoak eta askenean
agertuko gara Jaungoikoaren au-
rrean bakean, pozez, irribarreka
egitada onakin, eskuak beteta,
ludi onetan bete dogulako Josuren
berri ona eta berak artuko gaitu
bere eskuetan.*

ESKU-IDAZKIAK

XVII

GORAPEN-ABESTIA

IX sorta

²*Nire begiak ez dira gabez isten,*

³*erruki bagarrik be [... ezin bizi naiteke].*
[Atzamatu egiten naz] sumin oldarsuan
su ta gar [...] triskantzaz.

^o*[Murgildu egiten naz] eriotz-olatuetan.*
Inpermuan lez natza etzan-lekuan,
arao, erosta, negar egiten dot.

⁵*Nire begiak, negarrez, labako keeaz minduta*
lez.
Nire negar-malkoak amil-urak lez.
Nire betseñiak erre egiten dira atsedena eskatzen
dabela.

⁶*Nire espirituak urrunera egiten dau iges, urru-*
nera;
ez dot idoroten.
Nire bizitza ara-ona dabil:
ondamenditik triskantzara, miñetik zaurira,
esturatik zoritxarrera.
Eta, alan be, nire arimea
zeure aal-izatez beterik dago;
nire izatearen sakonean
Zuk ez nozula baztartzan ulertzen dot.

⁸*Aldia igarroteaz batera,*
nire arimea zeure maitasun zabalean galtzen da.

⁹*Berba gaiztoak jaurtiko dautsadaz*
ni kentzeko aalegiñak egiten dauzanari,
iraiñak (jaurtiko dautsedaz) nire azkena billatzen
dabenai.
Nire auzia, ostera zuzena dala autortuko dot;

¹⁰*izan be, ezagutzen dot Zu zer zarean*
eta ba-dakit ni obeto ezagutzen nozuna.
Atsegiñetan nago txiki-izateaz;
Zeugan soillik dot azken-bagarik.

"Eskari bat ezarri zenduan zure morroi onen
agoan.
Nire biziarentzat ez izan baztartzetik, ez atzerape-
nik,
zure bakea ez zan joan nigandik urrun,
ez yatan gogora etorri be egin
Zuk ni bertan-beera itziko nendukezunik.

¹²*Zartadearen atzean zartadea [eroan dot]*
eta ez da nire itxaropena gutxiagotu.
Eutsi egin zeutsan nire espirituari,
aunditu egin zenduzan nigan aren ormatzarrak.

¹³*Zeuk ezagutzen dozuz nire leia, nire esturea ta*

KUMRAN

nire pozgarria.
Zure parkamena miritza lez da.
Nire damua neure leenengo obeneraiño luzatzen da.

¹⁴ Zure ontasun sakonetik
beti sortzen da itxaropen bat,
zure indarraren aal-izatek
uste ona dator niretzat;
iñor ez da berez zuzena.

¹³ Zure aurrean iñor be ez da errubagea
Zeuk aztertzen dozunean.
Gizon batek beste gizon bat zuzena dala autortu aal
izango dau;
bera lakoa dan beste gizon batek be
jakituna dala esan aal izango dautso,

¹ 'buztiñaz egindako beste gizaki batek be
goragarria dala autortu aal izango dautso.
Bera lakoa dan beste batek
espirituz indartsua dala autortu daike,

"baiña zure ondoan 'ñok ez dau ezer bal'ro.
Zeu bakarrik zara goragarria azken-bagarik,
edozein negurritik aruntzago Zu;
zure jakituria ta zintzotasuna negurribageak dira.

¹⁸ [Leza bat] aregandik banantzen diranentzat.
baiña, Zeuri eskerrak,
ni zeure ondoan naukazu,

¹⁹ ez dozu urruntzen nigandik zure biozperatasu-
na.
Zurbillerazo egingo dozuz zure arerioak,

²⁰ nitzaz zirtzil bat, ondakin bat egin izateaz
arrotzen dirala.

²¹ (...) ni [ezin ondatu naikezul,
[...]] [nitzaz] ona zara-ta.
Ez dira nagusitzen. Nire oiñak ez ziran jausi
lakioaren burdiñetan.

²² Gizon aurpegi gorrituak neure aurka diardue
burrukan.
Zoritxarra nire txarto-esaleen aurka,

"Zeu zara nire Jaungoikoa-ta;
egunsentia ezkerre Zeuk epaitzen dozu nire auzigaia.
Ni zigortu ba'nozu,
zeure jakitearen asmo ezkututsu bategaitik da.

²⁴ Estalduta dago niretzat zure egia
zure burua. Zeuk agertzen dozun une bererarte.
Zer da zure zigorradea niretzat?
poz-irrintziak sakonetik;

"nire zauriak: osasuna;

desta'ñaldia niri gorroto dausten eskuetan nago-
nean.
aintzazko koroea. Nire makaltze betikoa: indarra.

²⁶ Egia.
Zeure jakitean egiten naz jakintsu,
zeure aintzan egiten dau dizdiz nire argiak.
Izan be, illunpeetako altzotik
izar argitsu bat iziotu zan niretzat.

²⁷ Osatu egin zenduan nire min bizia,
sendarazo nire zauria,
nire ezbairuntz luzatutako indar miragarria.

²⁸ Wire estura-barruan zabalduetako toki-unea.
Zeu, ene Jainko, nire igeslekua, nire gordelekua,

²⁹ nire arkatxa, nire euskarria, nire gaztelua,
edozein ezbearrerako magalpea.

³⁰ Askatze ziuerra zara;
neure aitaren erne mil-lean ezagutu nenduzun;

³¹ neure amaren sabeletik zaindu nenduzun.
Zeure bularretik edan neban ugatza,
zeure errukiaren barruan 'rsuiten zan niren janaria.
Ama-sabelean janaritu nend:ian.

¹² Neure gaztarotatik argitu nozu
zure jakituriaz eta zure adimenaz,
kaltebaga eutsi daustazu zure egiaz.
Azkenengo unerarte gorde nozu zure espiritu san-
tuaz, nire atsegilial

"Ezetz dirautsazu beti nire guzurrari,
zure «Shalom» gordeleku bat da nire arimearentzat;
nire ibilkerak negurtuta datoz zure parkamenaz ba-
tera;
erruki ugariak inguratzen nau
zure epaitzea neure izatearen iturbegira jatsiten da-
nean;

³⁴ nire ulea zuritu arte,
Zeu bakarrik izango zara nire euskarri.

"Izan be, egiaz, nire aitak ez nenduan ezagutu,
nire amak Zeugan itzi nenduan bertan-beera.
Zeu zara egiari itsasten yakozanen aita;
eurakan dozu atsegin,

³⁶ bere bularrekoagana makurtzen dan amak lez,
bere bernetan semea janaritzen dauan aitak lez,
norberaren ardurea dauanak lez,
bere umea ezagutzen dauanak lez.

KERETXETA

ERITXI BATZUK BIZKAIERAREN ALDE

"Ama, zenbatek saldu zaitue...
Zenbat eta almentsuago
zure semetarik asko
zuretzat etsaiago".—PA ULIN'ek

"Erriko euskerea galtzen ba'da, geure arimea, geure sena, geure biotza galtzen da... Bizkaitarrak azpiratuta gagoz, Bizkai'ko euskerea zapaldu egin dabe.
Alako euskera guztiz ederra".

GALLASTEGI'TAR KAULDI'K

* * *

"Nik bizkaiera muiñetaraiño sartuta daukat, eta nire bizitza aiña maite dot. Ezin dagiket jasan, azkenengo urteotan sorturiko erri euskalkiak txokoratzen (baztartzen) dauzan joera barri ori. Asmakeria eta kutsu errikoia ez dauanaren alde ekin bear ori..."

ZUBIRI'TAR IÑAKI'K

* * *

"Nik, bizkaitar lez, lenengo erakutsi eusten izkuntza lez, bizkaiera erabiltera beartuta nagoan lez, nire buruari itanduten dautsak: Ze pekatu egin dogu bizkaitarrok gure jaiotzatik artu eta erabili dogun bizkaiera erabilteagaz? Zeiñen aurka egin dogu pekatu ori? Gure izkuntza au emon euskun Jainkoaren aurka? Sorlekua emon euskun Bizkai erriaren aurka? Edo ta ez ete dogu guk bizkaitarrok gure nortasunez euskaldun iza-teko eskubiderik?"

Augustin ZUBIKARAI'K

* *

"Nire ardura edo kezkarik andiena da Bizkaiko euskerea baztartuta ta zapalduta ikustea. Eta Bizkaian ez dagola beste euskera bizirik BIZKAIEREA baiño. Eta euskerearen izenean euskera bizi ori itozten ba'dabe... agur emengo eta ango euskerea".

J. A. RETOLAZA'K

* * *

"Bizkaiko gaztetxuak ikastolatik etortean, sarritan gurasoei edo etxeko edozeiñeri *erderaz esateko esaten dautsee*, ikastolan ikasten dagozan euskerea desbardiña dalako.

Aurreko menperatzaillea, Franco, il zan ezkerro, noren euskuetan gagoz orain?

Aizu bizkaitarrok! geureari da baztartze andiena egin dautsoena, ez itzi borroka!, BIZKAIERA ilten ba'da, Bizkaia be ilko da eta Bizkaia barik ez dago Euskalerririk!

PALMI MERINO'K

* * *

"Gaur ain zapaldua ikusten dodan Bizkai'ko euskera ederra eta gure elertian guztiz aberatsa danaren alde zerbait egin bearrean nago. Zapaltze guztien aurka jokatzea, zuzentasunak berak eskatzen dautta".

OLAZAR'TAR MARTIN'EK

BILBAO'TAR JON E'K

Aukeratuak

ZER

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

Bizkaia'k bere Kutxa dauko



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA



BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA

Laguntza aundia